

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko urriaren 29tik azaroaren 04rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/10/31

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko urriaren 18koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den zezenketen VI. lan hitzarmen kolektibo nazionala aldatzeko akordioa. **17790 xedapena - 2 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/10/31

- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Hidrokarburoak.** TED/1026/2022 Agindua, urriaren 28koa, iturri berriztagarrietatik datorren gasaren jatorriaren berme-sistema kudeatzeko prozedura onesten duena. **17721 xedapena - 43 or.**

2022/11/01

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. Gizarte Segurantzaren.** Ebazpena, 2022ko urriaren 26koa, Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bidez ezartzen den urriaren 11ko ISM/992/2022 Agindua aplikatzetik eratorritako aldeak ordaintzeko epe berezia. Aipatutako agindu horren bidez, kontingentzia arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizatu beharreko oinarri normalizatuak zehazten dira 2022ko ekitaldirako, Ikatx Meatzaritzarako Gizarte Segurantzaren Araubide Berezian. **17840 xedapena - 1 or.**

2022/11/02

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. Gizarte Segurantzaren. Aurrekontu kontabilitatea.** Ebazpena, 2022ko urriaren 11koa, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusiarena, zeinaren bidez onesten den Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten erakundeentzako kontabilitate eragiketen Instrukzioa, eta aldatzen den Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten

erakundeentzako kontabilitate eragiketen Instrukzioa onesten duen 2014ko uztailaren 3koa. 17978 xedapena - 82 or.

2022/11/03

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Jokoa.** 23/2022 Legea, azaroaren 2koa, zeinaren bidez aldatzen den Jokoa arautzeari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legea. 18037 xedapena - 13 or.
- **GORTE NAGUSIAK. Premiazko neurriak.** Ebazpena, 2022ko urriaren 27koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila irailaren 20ko 17/2022 Errege Lege-dekretua baliozkotzeko Akordioa. Horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira energiaren esparruan, kogenerazio instalazioei ordainsarien araubidea aplikatzean, eta aldi baterako murrizten da erregai jakin batzuei dagokienez Europar Batasunaren barruko entreegi, inportazioei eta erosketei aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren tasa. 18038 xedapena - 1 or.
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Laguntzak.** APA/1046/2022 Agindua, urriaren 28koa, zeinaren bidez ezartzen diren oinarritzko ordainketa-erregimenerako eskualde-aplikazioaren eredu eskualde bakoitzaren behin betiko batez besteko eskualde-balioak, 2022. urtean. 18039 xedapena - 4 or.
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. Genero berdinasuna. Ordainsariak.** PCM/1047/2022 Agindua, azaroaren 1ekoa, zeinaren bidez onesten eta argitaratzen den emakumeen eta gizonen arteko ordainsari berdintasunerako urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretuan ezarritako lanpostuak baloratzeko prozedura. 18040 xedapena - 4 or.
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. Genero berdinasuna. Jostailuak. Segurtasun arauak.** PCM/1048/2022 Agindua, azaroaren 1ekoa, zeinaren bidez aldatzen den jostailuen segurtasunari buruzko azaroaren 26ko 1205/2011 Errege Dekretuaren II. eranskina. 18041 xedapena - 3 or.
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. Antolamendua.** PCM/1049/2022 Agindua, azaroaren 1ekoa, Giza Biomonitorizaziorako Ministerio arteko Batzordea sortzen duena. 18042 xedapena - 7 or.
- **KONTSUMO MINISTERIOA. Jokoa.** Ebazpena, 2022ko urriaren 31koa, Jokoaren Antolamenduaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen den 2014ko urriaren 6koa. Horren bidez, joko operadoreen sistema tekniko behin betiko

ziurtagiriaren txostenaren eredua eta edukia ezartzen dituen xedapena onesten da, eta aldaketak kudeatzeko prozedura garatzen da. 18043 xedapena - 4 or.

2022/11/04

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. Mutualitate Judizial Orokorra. Administrazio prozedurak.** JUS/1052/2022 Agindua, urriaren 31koa, zeinaren bidez arautzen den gaixotasun profesionalek eta zerbitzuan gertatutako edo horren ondoriozko istriputik eratorritako eskubideak aitortzeko prozedura, Mutualitate Judizial Orokorrak kudeatutako administrazio mutualismoaren eremuan. 18104 xedapena - 11 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/11/04

- **LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA.** AGINDUA, 2022ko urriaren 14koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairu eskuragarriari buruzkoa. 4713e xedapena - 8 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/10/31

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. GIZARTE EKINTZA SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 115/2022 FORU DEKRETUA, urriaren 11koa, zeinaren bidez arautzen baita familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonen zaintzaileek atsedeen hartzeko aldi baterako egoitza-zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoa. I-830 xedapena- 5 or.
- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. GIZARTE EKINTZA SAILA.** Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 59508/2022 FORU AGINDUA, urriaren 28koa, zeinaren bidez onetsi egiten dira iraupen luzeko zainketak pertsonalizatzeko jardunbide egokien aintzatespenak arautzen dituzten oinarriak eta 2022rako horien deialdia. I-905 xedapena- 5 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/11/02

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren arteko hitzarmena, zerga informazioa lagatzearen inguruan. **6758 xedapena- 21 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO